



AGINDUA, INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKAKO SAILBURUARENA, “EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO
GEODIBERTSITATEAREN ESTRATEGIA 2020”
ONARTZEN DUENA.

ORDEN DE LA CONSEJERA DE MEDIO
AMBIENTE Y POLITICA TERRITORIAL POR LA
QUE SE APRUEBA LA “ESTRATEGIA DE
GEODIVERSIDAD DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO, 2020”.

Azken hamarkadan aurrerapauso handia egin da geokontserbazioaren alorrean, batik bat ingurune geologikoko elementu batzuk zaindu beharreko ondaretzat eta naturadibertsitatearen osagaitzat jo direlako. Joera horretan, oso garrantzitsua izan da ondare geologikoa, zientzia- eta hezkuntzabaliabidetzat jotzeaz gain, baliabide ekonomikotzat ere jotzea; hain zuzen ere, lurralde batean –eta, bereziki, haren naturagune babestuetan– garapen jasangarriko estrategiak aplikatzeko baliabide ekonomiko egokitzat.

La última década ha sido testigo de una acelerada evolución en relación con la geoconservación, fundamentada en la consideración de algunos elementos del medio geológico como parte del patrimonio y la diversidad natural. A esta tendencia está contribuyendo de modo decisivo la observación del patrimonio geológico, no sólo como un recurso científico o educativo, sino también económico, de interés en la aplicación de estrategias de desarrollo sostenible (geoturismo) sobre un determinado territorio, especialmente en los espacios naturales protegidos.

Naturaren kontserbazioari buruzko legeria berriak berriaz aipatzen ditu ondare geologikoa eta geodibertsitatea. Hala, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 2007/42 Legearen (abenduaren 13koa) printzipio nagusietako bat geodibertsitatea kontserbatzea da; natura-ondarearen osagai gisa definitzen du, eta Administrazio Publikoek babestu egin behar dutela dio: “Natura Ondarearen kontserbazio-egoera zein den jakiteko tresna egokiak izan behar dituzte, eta, gero, ezagutza hori oinarri hartuta, ondare horren kontserbazioa bermatzeko neurriak diseinatu behar dituzte. Hori lortzeko, nahitaezkoa da sektore-politiketan jasotzea natura-ondarea kontserbatzeko eta baloratzeko, biodibertsitatea babesteko, eta baliabide naturalak kontserbatzeko eta modu

La nueva legislación referida a la Conservación de la Naturaleza, comienza a mencionar de manera explícita el patrimonio geológico y la geodiversidad. Así, la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, incluye en sus principios inspiradores la conservación de la geodiversidad, definiéndola como parte del patrimonio natural y estableciendo que su protección es deber de las Administraciones Públicas que; “deben dotarse de herramientas que permitan conocer el estado de conservación del patrimonio natural y con base en este conocimiento podrán diseñarse las medidas a adoptar para asegurar su conservación, integrando en las políticas sectoriales los objetivos y las previsiones necesarios para la conservación y valoración del patrimonio natural, la protección de la



jasangarrian erabiltzeko helburuak eta aurreikuspenak.”

Legeak, beraz, aurreikusten du, natura-ondarea eta biodibertsitatea ezagutzeko eta planifikatzeko tresnen artean, Geologia Interesdun Lekuen Inbentario bat sortzea, gutxienez nazioarteko garrantzia duten unitate eta testuinguruak jasoko dituen. Halaber, behartzen du Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Espainiako Plan Estrategikoa osatzera, eta haren helburua ere definitzen du: “lurreko eta itsasoko baliabide naturalak, biodibertsitatea eta geodibertsitatea kontserbatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko eta, behar izanez gero, leheneratzeko neurriak eta helburuak finkatzea eta definitzea”. Bestalde, plan horren gutxieneko edukia eta plana egiteko eta onesteko prozedura ere finkatzen ditu.

Berriki onartu da Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen 2011-2017 Plan Estrategikoa, zeinaren helburuetako bat geodibertsitatea kontserbatzea eta modu jasangarrian erabiltzea baita. Planaren oinarrizko elementuetako bat geodibertsitatearen egoeraren diagnostikoa egitea da. Kontserbatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko eta leheneratzeko xedeak, helburuak eta ekintzak finkatzen ditu Planak; besteak beste, helburu hauek ditu:

- Geodibertsitateari eta ondare geologikoari buruzko ezagutza handitzea, eta haien babesa sustatzea.
- Geodibertsitatearen eta ondare geologikoaren kontserbazioarekin lotutako administrazioen eta erakundeen – eskualdekoak, Espainiakoak eta nazioartekoak— arteko elkarlana eta

biodiversidad, la conservación y el uso sostenible de los recursos naturales.”

De este modo, la citada Ley contempla, entre los instrumentos para el conocimiento y la planificación del patrimonio natural y de la biodiversidad, la creación de un Inventario de Lugares de Interés Geológico representativo de, al menos, las unidades y contextos geológicos de relevancia mundial. También obliga a elaborar el Plan Estratégico Estatal del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, definiendo su objeto como “el establecimiento y la definición de objetivos y acciones que promuevan la conservación, el uso sostenible y, en su caso, la restauración del patrimonio, de los recursos naturales terrestres y marinos y de la biodiversidad y geodiversidad” y fijando su contenido mínimo y el procedimiento de elaboración y aprobación.

Recientemente se ha aprobado dicho Plan Estratégico del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad 2011-2017, uno de cuyos objetivos es la conservación y uso sostenible de la geodiversidad y dentro del cual la diagnosis de la situación de la geodiversidad es uno de sus elementos básicos. Este Plan establece metas, objetivos y acciones para la conservación, uso sostenible y restauración y concretamente contempla entre sus objetivos:

- Incrementar los conocimientos sobre geodiversidad y patrimonio geológico, y aumentar su protección.
- Mejorar la cooperación y colaboración entre Administraciones y organismos regionales, estatales e internacionales relacionados con la conservación de la geodiversidad y el

lankidetza hobetzea.

Helburuok lortzeko, zenbait ekintza prestatu dira, eta ekintzon arrakasta neurtzeko adierazleak eta irizpideak zehaztu dira, gero emaitzak ebaluatu ahal izateko. Estrategia honetan jaso dira ekintza horiek.

Kontuan hartuz «geodibertsitate» eta «ondare geologiko» terminoak aski berriak direla ingurumeneko eta garapen jasangarriko politiken testuinguruan, hauxe da Euskadik dokumentu honen bidez bere egiten duen erronka nagusia: kudeaketarako oinarri eta irizpide orokorrak batzen dituen tresna-esparru bat ezartzea, kudeaketarako oinarri eta irizpide orokorrak jasoko dituen, eta kudeaketa horretan parte hartzen hartzen duten jakintza-alor anitzeko eragileak (gai horretan eskumena duten administrazio eta erakunde publikoetakoak – Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak, partzuergoak, mankomunitateak, turismo-bulegoak, landa-garapenerako agentziak, eta abar– eta erakunde eta elkarte pribatuetakoak edo GKEak) koordinatzeko behar diren estrategia, programa eta ekintza egokiak definituko dituen.

Hala bada, EAEko 2020 Geodibertsitatearen Estrategiaren helburua da bateragarri egitea lurraldearen garapena eta baliabide naturalak –geologikoak, hain justu– balioestea eta kontserbatzea.

Eztabaidan parte hartu eta landutako agiria onartzeko prozesuan parte hartzeko dei egin zaie Administrazio Publikoiei, erakundeei, enpresei eta elkarte ekologistei, besteak beste. Era berean, hirritarrek prozesuan parte hartzeko informazio kanpainak egin dira.

patrimonio geológico.

Para estos objetivos se establecen acciones concretas e indicadores y criterios de éxito, con el objetivo de que puedan evaluarse los resultados. Estas acciones han sido reflejadas en la presente Estrategia.

Teniendo en cuenta que los términos geodiversidad y patrimonio geológico son relativamente nuevos en el contexto de las políticas medioambientales y de desarrollo sostenible, el principal desafío que Euskadi asume con este documento es establecer un instrumento marco que recoja las bases y criterios generales para su gestión y defina las estrategias, programas y actuaciones necesarias para coordinar a los diferentes agentes multidisciplinares involucrados en dicha gestión, tanto de administraciones e instituciones públicas con competencias en la materia (Gobierno Vasco, Diputaciones Forales, Ayuntamientos, Consorcios, Mancomunidades, Oficinas de Turismo, Agencias de Desarrollo Rural, etc.), como de organismos privados, asociaciones u ONGs.

En este sentido, la Estrategia de la Geodiversidad de la CAPV 2020 se plantea con el objetivo de compatibilizar el desarrollo del territorio con la puesta en valor y conservación de los recursos naturales, en este caso geológicos.

En orden a garantizar la participación en el debate y aprobación del documento elaborado, se ha realizado un proceso de participación con Administraciones Públicas, instituciones, empresas y organizaciones ecologistas, entre otros. Asimismo se han realizado campañas de información para la

participación de la ciudadanía.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurunerako Aholku Kontseiluak 2013ko abenduaren 9an izandako bilkuran “Euskal Autonomia Erkidegoko geodibertsitatearen Estrategia 2020” agiriaren aldeko txostena egin zuten. Halaber, Naturzaintza-Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Aholku kontseiluak 2014ko otsailaren 27an izandako bilkuran aipatu Estrategiaren aldeko txostena egin zuen.

La Comisión Ambiental del País Vasco y el Consejo Asesor de Medio Ambiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en sesión de 9 de diciembre de 2013, han informado favorablemente la “Estrategia de geodiversidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2020”. Asimismo, el Consejo Asesor de Conservación de la Naturaleza del País Vasco-Naturzaintza ha informado favorablemente la Estrategia en su sesión de 27 de febrero de 2014.

Jaurlaritzaren Legeari Buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

En ejercicio de las competencias atribuidas en el artículo 26 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de la Ley de Gobierno y el Decreto 20/2012, de 15 de diciembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos,

XEDATU DUT:

DISPONGO

Lehena.- “Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia 2020” onartzea; Erabaki honen eranskin gisa doa Estrategia.

Primero.- Aprobar la “Estrategia de Geodiversidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2020”, que figura como anexo al presente Acuerdo.

Bigarrena.- “Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia 2020” agiriari zabalkundea emateko behar diren neurri guztiak hartzea.

Segundo.- Adoptar cuantas medidas sean necesarias para la difusión del contenido de la “Estrategia de Geodiversidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2020”

Gasteizen.

En Vitoria-Gasteiz.

**INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUA
LA CONSEJERA DE MEDIO AMBIENTE Y POLITICA TERRITORIAL**

ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA